

## I. Helburua eta irismena

1. Dokumentu honek barneko salaketa-bideen funtzionamendu orokorra ezartzen du eta Betetze Batzordearen ikerketa-betebeharra garatzen du, zeina (i) CAF Taldeko Jokabide Kodean, (ii) CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan, (iii) CAF Taldeko lehia arloko zuzenbidean eta (iv) CAF Taldeko Informazio Pribilegiatuaren Kudeaketa eta Komunikaziorako Eskuliburuan ezartzen baita, eta horretarako, gerta daitezkeen arau-hausteen aurrean Betetze Batzordeak jarraitu beharreko ikerketa-prozedurak zehazten ditu.
2. Prozedura hau Betetze Batzordeak CAF Taldeko Gobernu Korporatiboko Sistemari oro har<sup>1</sup> (hemendik aurrera **“Gobernu Korporatiboko Sistema”**) gertatzen diren arau-haustek, eta, bereziki, (i) CAF Taldeko Jokabide Kodean gertatzen direnak edota (ii) Delituen Prebentzioaren, (iii) Lehia Zuzenbidearen, edota (iv) Merkatu-abusua eta Informazio Pribilegiatuaren kudeaketaren alorreko edozein barne-araudi edo -legeditan gertatzen diren arau-haustek ikertzeko egiten duen edozein ikerketatan aplikatuko da.
3. Prozedura hau korporatiboa da, eta ondorioz, CAF Taldeko edozein sozietateri eragiten dio (aurrerantzean, berdin erabiliko dira **“Taldea”** eta **“CAF Taldea”** izendapenak), edozein dela ere haren kokaleku geografikoa, hargatik eragotzi gabe jarduera jakin hori gauzatzen den herrialdeko berariazko legezko exijentziatara egokitutako Compliance programa baten esparruan onartutako ikerkuntzarako prozedura zehatzak; kasu horietan, dagoeneko indarrean dagoen legediarekin kontraesankorra ez den neurrian aplikatuko da prozedura hau, eta haren osagarri moduan funtzionatuko du.

## II. Ikerketen hasiera

1. Gobernu Korporatiboko Sistemak betetzen ez duen edozein kasu ikertuko du Betetze Batzordeak, eta bereziki, (i) CAF Taldeko Jokabide Kodearen edo (ii) Delituen prebentzioaren, (iii) Lehia Zuzenbidearen edota (iv) Merkatu-abusuaren eta Informazio Pribilegiatuaren kudeaketaren edozein barne-araudi edo -legedi urratzen duen edozein kasu, «i.» atalean adierazi denari jarraikiz, halako kasuren baten berri duenean; era berean, Taldeko profesionalak beren lanean edo Taldearekin harremana duten edo hark kontratatzen dituen hirugarrenek ere harreman horren esparruan egiten dituzten irregulartasun edo legearen kontrako ekintzak ikertuko ditu, eta baita aurrez aipatu diren pertsona horietako edozeinek Taldearen interesei, izenari edo ospeari kalte egiten dien kasuak ere, nahiz eta ekintza horiek Taldearekin lotutakoak ez izan.
2. Kanpoko aholkulariak ere izendatu ahal izango ditu ikerketa-betebehar horiek betetzeko beharrezkoak baldin badira.

---

<sup>1</sup> **CAF Taldeko Gobernu Korporatiboko Sistema:** CAF Taldeko Gobernu Korporatiboko Sistema Barne Mailako Araudi Sistemako (Taldeko arau guztiak biltzen ditu) hierarkian garrantzirik handiena duen arau sorta da. Gobernuaren organoen funtzionamendua arautzen du eta oinarri ditu printzipio etikoekiko konpromisoa, jardunbide egokiak, gardentasuna eta interes sozialaren defentsa.

3. Aurreko 1. azpiatalean adierazitakoari kalterik egin gabe, bakar-bakarrik lan-arloan edo lan-arriskuen prebentzioari lotutako alorrean gertatutako irregulartasunak eta beste arlo batzuetan, hala nola Delituen Prebentzioan, Lehia Zuzenbidean edota Merkatu-abusuen eta Informazio pribilegiatuaren kudeaketan eragiten ez dutenak ikertzeko, dagokion gaiaren berariazko ikerketa- eta diziplina-bideei jarraituko zaie, eta ez Prozedura honi. Hala balitz, irregulartasuna garrantzi handikoa bada bakarrik jakinaraziko zaio Betetze Batzordeari CAF eta Taldeko Jokabide Kodea ikuskatzeko funtzioaren esparruan.
4. Betetze Batzordeak ikerketa ofizios hasteko aukera izango du, edo bestela, ondorengo atalean definitzen diren Salaketa Bideen edo beste edozein bitarteko erabiliz formulatutako salaketa baten bidez. Salaketak aurreko 3. azpiatalaren esparruan adierazten direnak izanez gero, ikerkuntza eta lan-espeditarearen kudeaketa gauzatzeko eskumena duten organoetara eskualdatuko dira.
5. Prozedura honetan ezartzen diren printzipio, jarduteko arau eta bermeak Betetze Batzordeak arau-hausteengatik izapidetuko dituen espeditante guztiei aplikatuko zaizkie, prozedura edozein modutan hasi dela ere.
6. Aurreko 1. azpiatalean aipatutako arau-hausteek leku horretako legeriara egokitutako Compliance programa propioa duten herrialde, negozio edo filialen bati eragiten badiote, alor horretan adierazten denaren arabera erantzuna emango zaie, halakorik balego, eta titulu hau Prozedura honetako "1.3." atalean jasotzen denaren arau osagarria litzateke. Edonola ere, zentzu horretako edozein ekintza gertatuz gero edo eguneraketa behar izanez gero, sistematikoki eta berehala jakinarazi beharko zaio Betetze Batzordeari.

### III. Salaketa Bideak eta Salaketa Bide Orokorra

1. Besterik arautu ezean edo salaketa-bide berezirik eskatu ezean, Betetze Batzordeari dagokio CAF Taldeko<sup>2</sup> Barne Mailako Araudi-Sistema (aurrerantzean, "**Barne mailako Araudi-sistema**") desberdinetan jasotzen diren salaketa-bideen kudeaketa, esaterako CAFeko langileei eragin diezaiekeen kasuena, hala nola bereizkeria, jazarpena, mobbing edo lan-segurtasunari dagozkienak; alor horietan gerta litekeen edozein jokabide ezegoki komunikatzeko eta haiei erantzuna emateko bide espezifikoak ezarriko dira. Bide berezi horiek kudeatzen dituen erantzuleak era koordinatuan jardungo du Betetze Batzordearekin, salaketa horien eta salaketa-bide orokorren bidez egindakoen kudeaketa egokia egiteko.
2. CAF Taldeak ezarritako kode, barne-araudi eta bestelako politika edo prozeduretan jasotzen denaz gain, edozein Compliance alorretako eskuliburu, araudien eta garapen-araudien Jokabide kodea ez betetzea edo hura ez-betetzearen susmoren bat izatea Betetze Batzordeari jakinarazi beharko zaio, beste bitarteko batzuen artean Taldeko salaketa-bide orokorraren bidez (aurrerantzean, "**Salaketa-bide orokorra**").

---

<sup>2</sup> CAF Taldeko Barne Mailako Araudi-Sistema: CAF Taldeko barne-arau guztien multzoa

3. Auditoria Batzordeak ikuskatuko du salaketa-bide orokorraren behar bezalako funtzionamendua, eta uneoro emango die Taldearen barruan konpainiarekin zerikusia duten eta garrantzi potentziala duten irregulartasunak jakinarazteko aukera langileei eta Taldeari lotutako beste pertsona batzuei, hala nola aholkulariei, akziodunei, hornitzaileei, kontratistei edo azpikontratistei, horien artean baita finantza- eta kontularitza-alorretako irregulartasunak edo konpainiarekin lotutako beste edozein motatakoak jakinarazteko aukera ere.
4. CAF Taldeko web korporatiboan jarraian adierazten den sistema ordezkatzeko dela adierazi ezean, Salaketa-bide orokorra ondorengo helbide elektronikoa izango da, eta bertara zuzendu beharko dira Betetze Batzordera bidali nahi diren jakinarazpenak: [whistleblowerchannel@caf.net](mailto:whistleblowerchannel@caf.net).
5. Uneoro bermatuko da jasotzen diren salaketen konfidentzialtasuna, eta jakinarazpenak anonimoan egitea ere onartuko da, baldin eta salatzaileak Betetze Batzordeari salaketa ez dela faltsua erakusten duten seinale batzuk eta ikerketa hasteko adina informazio ematen badizkio. Edonola ere, salatzailearen eta salatuaren eskubideak errespetatuko dira.
6. Organo horrek noizean behin aztertuko ditu jasotako salaketak eta, egoki irizten badio, salaketa bakoitzaren egoera zehatzei dagozkien ekintzak egingo ditu.
7. Salaketa-bideen kudeaketan, Betetze Batzordeak CAF Taldeko Jokabide Kodean ezarritako arau eta printzipio informatzaileak errespetatu beharko ditu, edo hala badagokio, baita Gobernu Korporatiboko Sistemaren beste arau batzuk ere.
8. Era berean, salaketa-bideen kudeaketan CAF Taldeko Datu Pertsonalen Babeserako Eskuliburu eta Politika Korporatiboan eta alor horretako legedian jasotzen diren betebeharrak errespetatuko dira.
9. Guztiarekin ere, Betetze Batzordeak atal honetan jasotzen den informazioa zabaldu, egokitu edo alda dezake, Salaketa-bide orokorra kudeatzeko eta bereziki bere eskumenekoak diren Compliance alorren garapen-arauak onartzeko eskumena duen esparruan, herrialde bakoitzean une bakoitzean indarrean dagoen legedia kontuan hartuta. Salaketa-bidearen zerbitzua partzialki edo erabat azpikontrata daiteke.

#### IV. Salaketak izapidetzea onartzea

1. Salaketa jaso ondoren, Betetze Batzordeak erabakiko du egokia den hura izapidetzea edo ez.
2. Betetze Batzordeak ez du izapidetuko funtsik edo egiazkotasunik nabarmen ez duten ekintzen salaketarik, ez eta Prozedura honetako "II" atalean jasotako kasuren bat betetzen ez duten kasuen salaketarik ere.
3. Aurreko ataleko 5. azpiatalean adierazitakoaren arabera, salatzaileak bere identitatea ez agertzeak ez du ekidingo Betetze Batzordeak salaketa izapidetzea, baldin eta

arrazoizko egiazkotasuna badu eta jasotzen den informazioa nahikoa baldin bada ikerketa irekitzeko.

4. Salaketaren izapidetzea argitzeko, Betetze Batzordeak, egoki baderitzo, salatzaileari eska diezaioke, baldin eta hura identifikatu bada, informazioa argitzeko edo osatzeko, eta horretarako jokabide irregular bat gertatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta/edo datuak emateko.
5. Salaketak Administrazio Kontseiluko kideren bati eragiten badio, kasua zuzenean Kontseilura eskualdatuko da, kasua ahal bezain azkarren azter dezaten, eta egoera zehatzei erreparatuta eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen txostena izan ondoren, ea neurririk hartu behar duen erabakiko du, hala nola barne-ikerketa bat zabaldu, Kontseilariaren dimisioa eskatu edo hark kargua uztea proposatu behar ote duen.
6. Betetze Batzordeak Auditoria Batzordeari hark edozein irregulartasuni lotutako espediente izapidetzeko eskatzen dion adina dokumentazio eta informazio emango dio.

#### **V. Espedientearen izapidetzea eta Prozeduraren bermeak**

1. Salaketa izapidetzea onartu ondoren, Betetze Batzordeak ikerketa egiteko eta espedientea izapidetzeko ardura duen instruktorea izendatuko du, eta zeregin hau kanpoko ikertzaile baten esku uzteko aukera izango du, "II.2" atalean xedatzen denari jarraikiz.
2. Salaketa Betetze Batzordeko kideren baten kontrakoa balitz, Batzordeak ez du parte hartzerik izango espedientearen izapidetzean. Era berean, Betetze Batzordeko edozein kidek interes-gatazkarik izango balu ikertutako ekintzekin, uko egin beharko dio espedientearen parte hartzeari.
3. Ikerketak Administrazio Kontseiluko kideren bati eragingo balio, Betetze Batzordearen independentzia ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuko lirateke, esaterako, Taldetik kanpoko den instruktore bat izendatuko litzateke.
4. Instruktoerek salaketak jasotzen duen informazioaren, eta bereziki, salatutako jokabidearen egiazkotasuna eta zehaztasuna frogatuko ditu kaltetuen eskubideei dagokienez. Horretarako, entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu. Taldeko profesional guztiek ikerketa honetan leialki kolaboratzeko betebeharra dute. Lekukoek eta kaltetuek erabat isilpeko izaera izango dute.
5. Instruktoerek kaltetutako alde guztiei jakinarazi beharko die haren datu pertsonalen trataera, eta CAF Taldeko Datu Pertsonalen Babeserako Politika eta Eskuliburu Korporatiboan eta alor honetako legedia aplikagarrian exijitzen diren beste edozein betebehara agindu beharko du.
6. Ikerketa guztian ikertutako pertsonen intimitaterako, defentsarako eta errugabetasun-presuntziorako eskubideak bermatuko dira eta salatzailearen kontra edonolako

errepresaliak saihesteko beharrezko neurriak hartuko dira. Taldeak hitzematzen du ez duela Betetze Batzordeak ikertu ditzakeen ekintza irregularrak salatu dituzten profesionalen aurkako inolako errepresalia-forma zuzen edo zeharkakorik erabiliko, asmo txarrez egin badute izan ezik.

7. Betetze Batzordeak eta instruktoreek prozeduraren edozein unetan eskatu ahalko dute Taldeko beste pertsonaren baten aholkularitza eta elkarlana, edozein salaketari dagozkion ondorioak eta jarduteko moduak determinatzeko.
8. Garapen-arauak egiteko duen eskumenaren esparruan, Betetze Batzordeak ikerkuntzak kudeatzeko xehetasun handiagoko barne-arau bat onartu ahalko du.

#### **VI. Espedientearen ebazpena**

1. Espedientearen izapidetzea amaitu ondoren, instruktoreak Betetze Batzordera eramango du ebazpen-proposamenarekin batera, hark egokia iruditzen zaiona ebatz dezan.
2. Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu profesionalen batek irregulartasunen bat edo legaltasunaren edo Jokabide Kodeko jarduteko arauen kontrakorik egin duela, Betetze Batzordeak kasua Giza Eskubideen Zuzendaritza korporatibora pasatuko du, egokitzat jotzen dituen diziplina neurriak har ditzan. Gero, Betetze Batzordeari jakinaraziko dizkiote neurriak hartu izana eta haien edukia.
3. Administrazio Kontseiluko kideren bati eragiten dion legaltasunaren edo Gobernu Korporatiboko Sistemaren arauen aurkako irregulartasunen edo ekintzaren bat gertatuko balitz, Betetze Batzordeak emandako ebazpena izendapenen eta Ordainsarien Batzordera eskualdatuko du Administrazio Kontseiluaren bidez, Gobernu Korporatiboko Sistemak jasotzen dituen edozein neurri aplikatu ditzan. Betetze Batzordeari jakinarazi beharko zaio neurri horiek hartu izana eta haien edukia.
4. Emandako ebazpenak ondorioztatuko balu hornitzailearen batek irregulartasunen bat edo legaltasunaren edo Jokabide Kodearen eta/edo Hornitzaileen Jokabide Kodearen kontrako ekintzaren bat egin duela, Betetze Batzordeak Erosketa Zuzendaritzari eskualdatuko lioke (edo etorkizunean funtzio hori beteko duenari) kasua, edo bestela, kasu bakoitzean dagokion Taldeko sozietatean erosketen solaskide denari, kontratu-eskubideak egoki betearaz ditzan. Hark Betetze Batzordeari jakinarazi beharko dio kasua.
5. Irregulartasuna delitua edo lege-haustea baldin bada, Betetze Batzordeak agintari eskudunei jakinaraziko die jokabidea.
6. Beste kasu batzuetan, Betetze Batzordeak egoki irizten dien neurriak hartuko ditu.
7. Espedientearen emaitza Taldeak legezko jokabide batzuk hartzea denean, jokabideok Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzara eskualdatuko dira, kasu bakoitzean egokiak diren jokabide administratiboak edo judizialak martxan jartzeko. Horren inguruan Betetze Batzordeari jakinarazi beharko zaio.

**VII. Berrikustea eta eguneratzea**

Betetze Batzordeak aldizka berrikusiko du Prozedura hau, bereziki Jokabide Kodean, Delituen prebentziorako Eskuliburuan edo CAF Taldeko lehia-arloko Zuzenbidean aldaketarik balego, edota praktikaren bidez haren aplikazioa hobetzeko beharra agerikoa denean.

**VIII. Onartzea**

Prozedura hau CAFeko Betetze Batzordeko Zuzendaritzak onartu du, 2020ko urriaren 5ean. Data horretatik aurrera egongo da indarrean.